Hala eta guztiz ere, posible izango da tarifa azpitik itundutako prezioekin herriz kanpoko erabilera esklusiboko garraioak egitea; kasu horretan ez da derrigorrez erabiliko taximetroa, baina itundutako prezioa idatziz agertzen duen agiria zerbitzuak dirauen artean kotxean eraman beharra izango da.

2.– Jarlekuka egindako garraio-zerbitzuen tarifak.

Zerbitzu hau burutzeko baimena ematen dion kontratuan azaltzen den tarifapean egingo da garraioa, betiere tarifari buruz eskumena duen organoak onartuta.

3.– Zerbitzu berezien tarifak.

Auto-taxiaren babespean burututako garraio bereziaren tarifa garraio berezientzat aurreikusitakoa izango da.

4.– Tarifek ekoizpen eta antolaketa egoera normal bateko benetako kostu guztiak hartu beharko dituzte, eta amortizazio egoki bat egiteko eta enpresarentzako arrazoizko mozkinak emateko modukoak beharko dute, bai eta zerbitzua edo jarduera egoki burutzeko modukoak ere.

5.– Tarifak 3. artikuluan xedatutakoaren arabera eskumena duen organoak finkatuko ditu, garraiariei eta erabiltzaileei entzun ondoren, eta aldian-aldian berrikusi egingo dira, kostuen egituraren osagaietan izandako gorabeherak kontuan izanik, baldin eta horiek zerbitzuaren edo jardueraren oreka ekonomikoan eragin nabarmenik badute.

6.– Politika ekonomikoa dela-eta garraioaren prezioa ere prezioen arau orokorretan jasotako eskuhartze modalitateren batean sartuta dagoenean, tarifen gaineko eskumena duen organoak tarifak ezarri edo aldatuko baditu, prezioak kontrolatzeko eskumena duten organoen onespena beharko du lehenengo.

b) Servicios especializados, entendiendo por tales los que requieran vehículos y/o conductores con requisitos diferentes a los ordinarios.

2.– Los títulos habilitantes para la prestación de los citados servicios especializados, así como el régimen jurídico de prestación de los mismos, se desarrollarán reglamentariamente.

CAPÍTULO V: RÉGIMEN TARIFARIO.

Artículo 17.– De las tarifas.

1.– Tarifas de los servicios de uso exclusivo.

La prestación del servicio de auto-taxi estará sujeta a tarifa, la cual deberá ser revisada periódicamente y aprobada por la autoridad competente. En los recorridos urbanos, dicha tarifa será vinculante y obligatoria para los conductores de auto-taxi y para los usuarios. Se establecerá un régimen tarifario distinto para los recorridos interurbanos, que, asimismo, será vinculante y obligatorio.

No obstante, podrán realizarse transportes interurbanos de uso exclusivo con precios pactados por debajo de la tarifa, lo cual exonerará de llevar en funcionamiento el aparato taxímetro, siempre y cuando exista constancia escrita del precio pactado y se lleve a bordo dicho documento durante la realización el servicio.

2.– Tarifas de los servicios de transporte por plaza.

El transporte será efectuado con la tarifa prevista en el contrato que le autoriza a realizar dicho servicio, la cual deberá ser en todo caso aprobada por la autoridad competente en materia de tarifas.

3.– Tarifas de los servicios especiales.

El transporte especializado que se efectúe al amparo de una licencia de auto-taxi debe realizarse con la tarifa prescrita para los servicios especializados.

4.– Las tarifas deberán cubrir la totalidad de costes reales en condiciones normales de productividad y organización, y permitirán una adecuada amortización y un razonable beneficio empresarial, así como una correcta prestación del servicio o realización de la actividad.

5.– Las tarifas se fijarán por el órgano competente según lo dispuesto en el artículo 3, con audiencia de transportistas y usuarios, y serán revisadas periódicamente, teniéndose en cuenta las variaciones que hayan sufrido las partidas que integran la estructura de costes y que supongan alteración significativa del equilibrio económico del servicio o actividad.

6.– Cuando por razones de política económica el precio de los transportes estuviera incluido en alguna de las modalidades de intervención reguladas en la normativa general de precios, el órgano competente para fijar tarifas deberá someter el establecimiento o modificación de las mismas a los órganos competentes sobre control de precios.

7.– Debekatua dago indarrean dauden arauetan eta administrazioaren derrigorrezko baimenean jasota ez dauden gehigarriak kobratzea.

8.– Araudiz zehaztuko da behin zerbitzu bat kontratatu ondoren taximetroa zein momentutan jarri beharko den abian.

VI. KAPITULUA: ZERBITZUEN INTERAKZIOA.

18. artikulua.– Zerbitzuaren lurralde-eremua.

1.– Jarduera burutzeko baimena zein udalerritakoa den, udalerri horretan bertan hasi beharko da lege honetan araututako zerbitzua.

2.– Salbuespen izango dira honako zerbitzuok: zerbitzu-eremu bateratuetan eta araubide bereziko eremuetan egitekoak; aurretiazko kontratazio bidez egitekoak; lizentzia edo baimenik ez den inguruetan egin beharrekoak, eta araudiz ezarritakoaren araberako zerbitzu berezituak.

19. artikulua.– Zerbitzu-eremu bateratuak.

1.– Zerbitzu-eremu bateratuak kasuan kasuko foru-aldundiek mugatuko dituzte, bai beren kabuz, bai eremu horretako udalek hala eskatuta. Foru-aldundiek beren kabuz jarduten badute, ukitutako udalen %50en onespena beharko dute gutxienez, eta, gainera, udal horiek eremuko biztanleen %75 hartu beharko dute.

2.– Zerbitzu-eremu bateratuak hainbat udalerritako zerbitzuen artean interakzioa edo elkarrekiko eragina dagoenean ezarriko dira, zerbitzuen antolaketa egokiak udalerri bakoitzaren interesak gainditzen dituenean.

3.– Eremu horietako zerbitzuak ere lege honetan ezarritako araubidearen menpe egongo dira.

4.– Zerbitzu-eremu bateratuak lurralde historiko bat baino gehiago ukitzen dituenean, artikulu honen arabera foru-aldundiei agindutako eginkizunak Eusko Jaurlaritzak hartuko ditu, eta horrek zuzenean burutuko ditu edo kasuan kasuko foru-aldundien esku utziko ditu.

20. artikulua.– Araubide bereziko eremuak.

1.– Araubide bereziko eremuak honako kasu hauetan ezarriko dira: portu, aireportu, trenbide edo autobus geltoki, ospitale, azoka edo antzekoen ondorioz edo bi udalerri edo gehiagoren arteko trafiko-interakzioa dela eta, trafiko handia sortzen bada udalerri batzuetatik besteetara eta zentro horiek dauden udalerrietako baimen eta lizentzien titularrak nahikoa ez badira eremu horietako eskariari behar bezala erantzuteko.

7.– Queda expresamente prohibido el cobro de suplementos que no estén previstos en la vigente normativa ni amparados por la preceptiva autorización administrativa.

8.– Reglamentariamente se determinará cuál debe ser el momento en que, contratado un servicio, se pondrá en marcha el taxímetro.

CAPÍTULO VI: INTERACCIÓN DE SERVICIOS.

Artículo 18.– Ámbito territorial del desempeño del servicio.

1.-Los servicios regulados en la presente ley deberán iniciarse en el término municipal a que corresponda la licencia que ampare el desempeño de la actividad.

2.– Se exceptúan, en su caso, los servicios realizados en áreas territoriales de prestación conjunta y zonas de régimen especial y aquellos otros en que exista contratación previa o hayan de cubrir zonas carentes de licencias o autorizaciones, y los servicios especiales, de acuerdo con lo que reglamentariamente se establezca.

Artículo 19.– Áreas territoriales de prestación conjunta.

1.– Son áreas territoriales de prestación conjunta las que así se determinen por las respectivas Diputaciones forales, bien de oficio, bien a instancia de los Ayuntamientos a que el área se refiera. En el supuesto de actuación de oficio, lo será con la anuencia de al menos el 50% de los Ayuntamientos afectados, que a su vez supongan el 75% de la población existente en el área.

2.– Las áreas territoriales de prestación conjunta se establecerán en las zonas en que exista interacción o influencia recíproca entre los servicios de varios municipios, de manera que la adecuada ordenación de los mismos trascienda el interés de cada uno de ellos.

3.– La prestación de servicios en las citadas áreas estará sujeta igualmente al régimen establecido en la presente ley.

4.– Cuando el área territorial de prestación conjunta afecte a más de un territorio histórico, las funciones atribuidas en este artículo a las Diputaciones forales serán ejercidas por el Gobierno Vasco, que podrá llevarlas a cabo por sí mismo o bien delegarlas en las Diputaciones forales correspondientes.

Artículo 20.– Zonas de régimen especial.

1.– Las zonas de régimen especial se establecerán cuando, como consecuencia de actividades tales como puertos, aeropuertos, estaciones ferroviarias o de autobuses, centros hospitalarios, ferias, mercados u otras similares, o cuando por existir interacción de tráfico entre dos o más municipios, se genere un tráfico importante que afecte a varios municipios y que no se encuentre suficientemente atendido por personas titulares de autorizaciones y licencias correspondientes a municipios en que dichos centros están situados.

2.– Araubide bereziko eremuak kasuan kasuko foru-aldundiek mugatuko dituzte, ukitutako udalen txostena jaso ondoren, eta eremu horietan, lizentzia garraioa hasi behar den udalerrikoa ez izan arren, ibilgailuek berdin eman dezakete zerbitzua.

VII. KAPITULUA: ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMANAK. LURRALDE HISTORIKOETAKO TAXI BATZORDEAK.

21. artikulua.– Erakundeen arteko harremanak.

Lege honetan arautzen diren zerbitzuen gainean eskumenak dituzten administrazioen arteko koherentzia, lankidetza eta koordinazioa bermatu ahal izateko, arautu beharreko gaiei buruzko konferentziak antolatuko dira. Eusko Jaurlaritzan garraio arloan eskumena duten organoek egingo dute biltzar horietarako deia.

22. artikulua.– Taxi-batzordeak.

1.– Lurralde historiko bakoitzean taxi-batzorde bat sortuko du foru-aldundiak.

2.– Taxi-batzordeak izango dira, lurralde historiko bakoitzean, administrazioen kontsulta eta aholkularitzarako organo, lege honek araututakoaren barruan.

3.– Legez edo araudiz eman lekizkiokeen eskumenak gorabehera, taxi-batzordeak kasuan kasuko administrazio-organoari, nahitaez, aholkua eman beharko dio txosten bidez, ondoren zehaztuko diren kasu hauetan:

a) Udalerri edo zerbitzuen lurralde-eremu bateratu bakoitzean gehienez ere zenbat lizentzia edo baimen izan behar diren zehazteko.

b) Zerbitzu berezituak antolatzeko.

c) Zerbitzu-eremu bateratuak eta araubide bereziko eremuak sortzeko.

4.– Gainera, zerbitzua emateko era desberdinei, lizentzien eskualdaketari edo gaitasun-ziurtagiriei buruz interesgarritzat jotzen dituen alderdien gaineko aholkuak emango dizkie eskumena duten administrazioei, garraiariei, langileei eta erabiltzaileei.

5.– Lege honen gaiaren inguruan edo zerbitzuak garatzeko interesgarri jotzen duen beste edozein alderdi buruzko txostenak ere egin ahal izango ditu.

6.– Taxi-batzordea Eusko Jaurlaritzaren, kasuan kasuko foru-aldundiaren, udalen –gutxienez horietako bat lurralde historikoko hiriburuaren ordezkaria izango da– eta erabiltzaileen eta taxi-arloaren ordezkariek osatuko dute.

7.– Batzordearen jarduera-araubidea azaroaren 26ko 30/1992 Legean kide anitzeko organoentzat ezarritakoari lotuko zaio.

2.– Son zonas de régimen especial aquellas determinadas por las respectivas Diputaciones forales, previo informe de los Ayuntamientos a que afecten, y en las cuales los vehículos con licencia de distintos municipios a aquellos en que se origine el servicio pueden prestar los oportunos servicios.

CAPÍTULO VII: RELACIONES INTERINSTITUCIONALES. LAS COMISIONES DEL TAXI DE LOS TERRITORIOS HISTÓRICOS.

Artículo 21.– Relaciones interinstitucionales.

A fin de garantizar la coherencia, colaboración y coordinación de las distintas Administraciones con competencias en los servicios a los que se refiere esta ley, se convocarán conferencias sobre las materias objeto de regulación. Su convocatoria se realizará por los órganos competentes en materia de transportes del Gobierno Vasco.

Artículo 22.– Comisiones del Taxi.

1.– En cada territorio histórico, la respectiva Diputación foral creará una Comisión del Taxi.

2.– Las Comisiones del Taxi serán, dentro de cada ámbito territorial, el órgano consultivo y asesor de las diversas instancias administrativas en el marco de la regulación de la presente ley.

3.– Sin perjuicio de otras competencias que por ley o reglamento le sean atribuidas, la Comisión del Taxi prestará asesoramiento al órgano administrativo correspondiente, con carácter preceptivo, mediante informe emitido al efecto, en los siguientes supuestos:

a) Número máximo de licencias o autorizaciones que deban existir para realizar servicios en cada municipio o zona de prestación del servicio.

b) Organización de los servicios especializados.

c) Creación de áreas territoriales de prestación conjunta y zonas de régimen especial.

4.– Asimismo, asesorará a las Administraciones competentes y a los transportistas, trabajadores y usuarios de cuantos extremos considere de interés en relación con las diferentes modalidades de prestación de los servicios, transmisión de licencias y obtención de los certificados de aptitud.

5.– Podrá también emitir informe sobre cualquier asunto de interés relativo a la materia de la presente ley o al desenvolvimiento de los distintos servicios.

6.– En la Comisión del Taxi estarán representados el Gobierno Vasco, la Diputación foral correspondiente, los Ayuntamientos, siendo al menos uno de éstos el representante de la respectiva capital, y los representantes de los usuarios y del sector del taxi.

7.– Su régimen de funcionamiento se ajustará a lo dispuesto en la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, para los órganos colegiados.

VIII. KAPITULUA: KONTROL, IKUSKARITZA ETA ZIGOR ARAUBIDEA.

Lehenengo atala: Kontrol-araubidea.

23. artikulua.– Administrazioak jarduera kontrolatzea.

1.– Lege honetan araututako jarduerak administrazioak kontrolatuko ditu araudiz ezarriko den eran.

2.– Kontrol horrek erabiltzaileen eskubideak indarrean dagoen legeriaren arabera babesten direla bermatuko du, eta erabiltzaileen eskubideei kalterik ez egiteko baliabide egokiak jarriko ditu.

Bigarren atala: Ikuskaritza.

24. artikulua.– Administrazioaren ikuskaritza-lana.

1.– Lege honetan araututako zerbitzuak 3. artikuluan xedatutakoaren arabera eskumena duten administrazioko organoek ikuskatuko dituzte. Ikuskatzaileak agintari publikotzat joko dira ondorio guztietarako, eta independentzia osoa izango dute beren lanean.

2.– Garraiariek, gidariek eta, oro har, lege honetan araututako zerbitzuak ematen parte hartzen duen edonork ikuskatzaile-lana agindu zaionari derrigor utzi beharko dio ibilgailua eta lege honen eta lege hau garatzeko xedapenen arabera derrigorrezko diren agiriak ikusten, bai eta baimena edo lizentzia behar duten gainetiko instalazioak ikusten ere.

3.– Ikuskatzaileek garraioa zaintzeko ardura duten administrazioko organoen laguntza izango dute, eta ikuskaritza eta zainketa lana koordinatuta egingo dira.

Hirugarren atala: Zigor-araubidea.

25. artikulua.– Administrazio-erantzukizuna.

Lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan ezarritakoa hausteagatiko administrazio-erantzukizuna Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzko otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoak arautuko du.

26. artikulua.– Garraio arloko arau-hausteak. Motak.

Kotxe bidezko garraio-zerbitzuen gaineko arauen aurkako arau-hausteak oso larriak, larriak eta arinak izan daitezke.

1.– Honako hauek arau-hauste oso larriak dira:

a) Beharrezko lizentzia edo baimena izan gabe edo horiek iraungi ondoren zerbitzua ematea.

b) Beste pertsona batzuen izenean emandako lizentzia edo baimena erabiltzea, edo, zerbitzua emateko, ti-

CAPÍTULO VIII: RÉGIMEN DE CONTROL, INSPECCIÓN Y SANCIÓN.

Sección Primera: Régimen de control.

Artículo 23.– Control de la actividad por la Administración.

1.– Las actividades reguladas en esta ley se someterán al pertinente control administrativo en la forma que reglamentariamente se determine.

2.– Dicho control garantizará la adecuada protección de los usuarios de acuerdo con la legislación vigente, facilitando los medios oportunos para que éstos no vean vulnerados sus derechos.

Sección Segunda: Inspección.

Artículo 24.– Función inspectora de la Administración.

1.– La inspección de los servicios regulados en esta ley será ejercida por los órganos administrativos competentes, según lo dispuesto en el artículo 3. Los inspectores tendrán la consideración de autoridad pública a todos los efectos, y gozarán de plena independencia en su actuación.

2.– Los transportistas y conductores y, en general, cuantos intervengan en la prestación de los servicios regulados en la presente ley tienen la obligación de facilitar a quien tenga encomendada la función inspectora, el acceso a los vehículos y a la documentación que de acuerdo con esta ley y las disposiciones que la desarrollen sea obligatoria, así como a las instalaciones que hayan de ser objeto de autorización o licencia.

3.– La Inspección contará con la colaboración de los órganos administrativos encargados de la vigilancia del transporte, coordinando la actividad de inspección con la de vigilancia.

Sección Tercera: Régimen sancionador.

Artículo 25.– Responsabilidad administrativa.

La responsabilidad administrativa por las infracciones a lo establecido en la presente ley y las normas de desarrollo se regirá por lo dispuesto en la Ley 2/1998, de 20 de febrero, de la Potestad Sancionadora de las Administraciones Públicas de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 26.– Infracciones del transporte. Sus clases.

Las infracciones de las normas reguladoras de los servicios de transporte en automóviles de turismo se clasifican en muy graves, graves y leves.

1.– Se considerarán infracciones muy graves:

a) La realización de los servicios careciendo de las preceptivas licencias o autorizaciones, o cuando las mismas hayan caducado.

b) La utilización de licencias o autorizaciones expedidas a nombre de otras personas, o la conducción del

tularra edo izendaturiko gidaria ez den beste norbaitek gidatzea ibilgailua.

c) Ikuskaritza, zaintza eta kontrol zerbitzuen lana zaildu edo horri ezetza ematea, eta, hortaz, araudiz dagozkien egitekoak betetzea eragoztea.

d) Lege honetan ezarritako zerbitzuak ematekoan lege-hauste penalak egitea, otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 18. artikuluan xedatutakoaren arabera.

e) Kotxearen derrigorrezko asegururik ez izatea.

f) Arau-hauste larri bat egitea, baldin eta horren erantzulea artikulu honen 2. paragrafoko letra berean tipifikaturiko arau-hauste larria egiteagatik aurreko urtebetean zigortua izan bada administrazioaren eta/edo epaileen erabaki irmo bidez.

g) Ibilgailua mozkortuta edo sorgorgarrien eraginpean gidatzea.

2.– Honako hauek arau-hauste larriak dira:

a) Lizentzietan eta baimenetan jasotako ibilgailuekin ez besteren batekin egitea garraio-lana, eta titulu gaitzaile horietan ezarritako lurralde-eremua ez errespetatzea.

b) Lege honetan araututako jardueretan dedikazio esklusibo eta osoz ez jardutea, eta lizentzia eta baimen horietan jaso gabeko zerbitzuak egitea, lege honetan eta lege hau garatzeko araudian xedatutakoa ez betez.

c) Baimena jaso ondoren zerbitzua ematen ez hastea eta/edo hirurogei egun naturaleko epean gelditua egotea, horretarako bidezko arrazoirik izan gabe.

d) Zerbitzuari buruzko kexa eta erreklamazioak aurkezteko behar dituzten agiriak ez uztea edo eskuratzeko oztopoak jartzea erabiltzaileei. Kexa edo erreklamazio horiek administrazioari ezkutatzea edo, arrazoirik gabe, araudiz xedatuko denaren arabera horien berri ematea luzatzea.

e) Derrigorrezko zerbitzuak ez ematea, eta, administrazioak halakorik ezarriz gero, ordutegiak eta atsedenak koordinatzeko araubidea ez betetzea.

f) Erabiltzaileen zerbitzu-eskaerei jaramonik ez egitea, eta bidaiariak, eskatu duten zerbitzua bukatu gabe, baztertuta uztea, 4. eta 14. artikuluetan aurreikusitako egoeraren bat gertatu ezik.

g) Tarifen araubidea ez betetzea.

h) Zerbitzuak egiteko ibilbide ezegokiak, erabiltzaileen interes ekonomikoarentzako kaltegarriak edo erabiltzaileek esandakoaren kontrakoak aukeratzea, horretarako bidezko arrazoirik izan gabe.

i) Zerbitzua kontratatu duen bidaiariak berekin ekarri ez duen beste norbait hartzea ibilgailuan.

vehículo realizando servicios por personas distintas del titular de la licencia o del conductor designado al efecto.

c) La negativa u obstrucción a la actuación de los servicios de inspección, vigilancia y control, que impida el ejercicio de las funciones que reglamentariamente tengan atribuidas.

d) La comisión de ilícitos penales con motivo de la prestación de los servicios objeto de esta ley, con arreglo a lo dispuesto en el artículo 18 de la Ley 2/1998, de 20 de febrero.

e) Carecer del seguro obligatorio del automóvil.

f) La comisión de una infracción grave, cuando en los doce meses anteriores a la misma su responsable haya sido objeto de sanción, mediante resolución firme en vía administrativa y/o vía judicial, por infracción grave tipificada en la misma letra del párrafo 2 del presente artículo.

g) Conducir el vehículo en estado de embriaguez o bajo los efectos de sustancias estupefacientes.

2.– Se considerarán infracciones graves:

a) La prestación de servicios con vehículos distintos a los adscritos a las licencias y autorizaciones, así como el incumplimiento del ámbito territorial de dichos títulos habilitantes.

b) El incumplimiento del régimen de plena y exclusiva dedicación al ejercicio de las actividades reguladas en esta ley, así como la prestación de servicios no amparados por las mismas, de conformidad con lo dispuesto en la presente ley y su desarrollo reglamentario.

c) La falta de inicio de los servicios una vez autorizados y/o la paralización de los mismos en el plazo de sesenta días naturales, sin causa justificada.

d) La negativa u obstaculización a los usuarios de la disposición de la documentación destinada a quejas y reclamaciones relativas al servicio. La ocultación o demora injustificada en la puesta en conocimiento de la Administración de dichas reclamaciones o quejas, de acuerdo con lo que reglamentariamente se determine.

e) El incumplimiento de los servicios obligatorios y del régimen de coordinación de horarios y descansos establecidos en su caso por la Administración.

f) La desatención de las solicitudes de servicio de los usuarios, y el abandono de los viajeros sin rendir el servicio para el que fuera requerido, salvo que concurra alguna de las circunstancias previstas en los artículos 4 y 14.

g) El incumplimiento del régimen tarifario.

h) La realización de servicios por trayectos o itinerarios inadecuados, lesivos económicamente para los intereses del usuario o desatendiendo sus indicaciones, sin causa justificada.

i) La ocupación de asientos por terceras personas ajenas al viajero que hubiera contratado el servicio.

j) Ibilgailuak dituen jarlekuak banaka kontratatzea, bete beharreko arauetan jasotako kasuak ez badira.

k) Hitz edo keinu zakarrak erabiltzea, eta erabiltzaileei, oinezkoei edo beste ibilgailuetako gidariei mehatxu egitea.

l) Ibilgailuan utzitako gauzak gordetzea, eskumena duen organoari hirurogeita hamabi orduko epean jakinarazi gabe.

m) Taximetro eta/edo modulurik ez izatea, ez erabiltzea edo behar bezala ez ibiltzea; ibilgailuan derrigor eraman beharreko beste edozein kontrolbide edo tresna ez izatea edo manipulatuta izatea, eta tresna horientzat edo ibilgailuentzat agindutako azterketak ez egitea.

n) Bidaiariak lizentzia eman den herritik kanpo hartzea, bete beharreko arauetan baimenduriko kasua ez bada.

ñ) Lege honetan eta lege hau garatzeko arauetan aurreikusitako derrigorrezko aseguruak ez egitea.

o) Baimenduriko bidaiariak baino gehiago garraiatzea.

p) Aurreko urtebetean artikulu honen 3. paragrafoko letra batean tipifikaturiko arau-hauste arina egiteagatik administrazioaren eta/edo epaileen behin betiko erabaki bidez zigortu duten titular horrek berriro ere arau-hauste bera egitea.

3.– Honako hauek arau-hauste arinak dira:

a) Araudiz exijitutako agiriak zerbitzua ematen den bitartean ez eramatea ibilgailuan.

b) Agiriak agerian ez eramatea, derrigorrezkoa den kasuetan.

c) Administrazioari nahitaez jakinarazi beharreko datuak ez ematea.

d) Erabiltzaileekin edo hirugarrenekin begirunerik gabe portatzea, baldin eta larritzat tipifikatzeko arinegia bada.

e) Titulu gaitzaileak ez bisatzea horretarako ezarritako epean.

f) Gidaria bera txukun ez joatea, eta ibilgailua barrutik nahiz kanpotik garbi ez izatea.

g) Araudiz ezarriko den kopururainoko trukerik (txanpon edo billetetan) ez ematea erabiltzaileari.

h) Aurreko zenbakian aurreikusitako arau-hausteak, baldin eta arau-hausteen izaeragatik edo inguruabarrengatik arintzat jo balitezke, otsailaren 20ko 2/1998 Legearen 14. artikuluan xedatutakoa aplikatu behar den kasuetan.

j) La contratación individual por plaza de la capacidad del vehículo, fuera de los supuestos contemplados en la normativa de aplicación.

k) El empleo de palabras o gestos groseros y amenazas a los usuarios, viandantes o conductores de otros vehículos.

l) La retención de cualquier objeto abandonado en el vehículo sin dar cuenta de ello a la autoridad competente dentro de las setenta y dos horas siguientes.

m) La carencia de taxímetro y/o módulo, su no utilización o su inadecuado funcionamiento, así como la carencia, falseamiento o manipulación de cualquier instrumento o medio de control que exista la obligación de llevar instalado en el vehículo, y el no sometimiento de tales instrumentos o de los vehículos a las revisiones preceptivas.

n) La recogida de viajeros fuera del municipio otorgante de la licencia, salvo en los supuestos autorizados en la normativa de aplicación.

ñ) La no suscripción de los seguros que haya obligación de realizar, según lo previsto en la presente ley y en su normativa de desarrollo.

o) El transporte de mayor número de viajeros que los autorizados.

p) La comisión de una infracción leve, cuando en los doce meses anteriores a su comisión su responsable haya sido objeto de sanción, mediante resolución firme en vía administrativa y/o judicial, por la infracción en una misma letra del párrafo 3 del presente artículo.

3.– Se considerarán infracciones leves:

a) La realización de servicios sin llevar a bordo del vehículo la documentación formal que se exija reglamentariamente.

b) No llevar en lugar visible la documentación cuando exista la obligación de hacerlo.

c) La falta de comunicación a la Administración de datos de los que preceptivamente haya de ser informada.

d) El trato desconsiderado a los usuarios o terceros, cuando por su levedad no deba ser tipificado como falta grave.

e) La no realización del visado de los títulos habilitantes dentro del plazo establecido.

f) El descuido en el aseo personal del conductor así como en la limpieza interior y exterior del vehículo.

g) No proporcionar al usuario cambios de moneda metálica o billetes hasta la cantidad que reglamentariamente se establezca.

h) Cualquiera de las infracciones previstas en el número anterior, cuando por su naturaleza o las circunstancias que concurran no deba ser calificada como grave, en los supuestos en que sea de aplicación lo dispuesto en el artículo 14 de la Ley 2/1998, de 20 de febrero.

27. artikulua.– Erabiltzaileen arau-hausteak.

1.– Erabiltzaileek lege honen 4. artikuluan xedatutakoaren arabera dituzten eginbeharrak ez betetzea arau-hauste arintzat joko da.

2.– Arau-hauste horiek garraiariak erabiltzaileari edo ibilgailua hartu duenari eska liezaiokeen erantzukizun zibilaren kaltetan gabe zigortuko dira.

28. artikulua.– Zigorrak.

1.– Arau-hauste arinen zigorra: ohartarazpena eta/edo 46.000 pezetarainoko isuna eta/edo titulu gaitzailea gehienez ere hamabost egunerako kentzea. Larrien zigorra: 46.001 pezetatik 230.000 pezetarainoko isuna eta/edo titulu gaitzailea gehienez ere sei hilabeterako kentzea. Oso larriena: 230.001 pezetatik 460.000 pezetarainoko isuna eta/edo titulu gaitzailea gehienez ere urtebeterako kentzea.

Aurreko paragrafoan ezarritako mugen barruan, zenbateko isuna jarri erabakitzeko, otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoa izango da kontuan.

2.– Lege honen arabera egoki diren zigorrak gorabehera, arau-hauste oso larriak behin eta berriro egiteak, edo jarritako zigorra ez betetzeak, titulu gaitzailea ezeztatzea ekar lezake.

29. artikulua.– Preskripzioa.

1.– Arau-hauste oso larriek hiru urtera preskribituko dute, larriek bi urtera, eta arinek sei hilabetera.

2.– Arau-hauste oso larriengatik jarritako zigorrek hiru urtera preskribituko dute, larriengatik jarritakoek bi urtera, eta arinek urtebetera.

3.– Bai arau-hausteen, bai ezarritako zigorren preskripzio-epea noiz hasi, noiz eten eta berriro noiz abiatzen den erabakitzeko, otsailaren 20ko 2/1998 Legean agindutakoari jarraituko zaio.

30. artikulua.– Eskumena eta prozedura.

1.– Lege honetan aurreikusitako zigorrak 3. artikuluan xedatutakoaren arabera eskumena duten administrazioko organoek jarriko dituzte.

Baimena eta lizentzia ezeztatzeko zigorra jartzea, nolanahi ere, haiek eman zituen administrazio berari dagokio.

2.– Lege honetan aurreikusitako zigorrak jartzeko eta betearazteko prozedura otsailaren 20ko 2/1998 Legean xedatutakoari lotuko zaio.

Zigortzeko prozeduran har daitezkeen kautelazko neurriei buruz lege horretan xedatutakoa gorabehera, zerbitzu bat ematekoan lege honetako 26.1.a) eta 26.2.e) artikuluetan deskribaturiko kasuak atzemanez

Artículo 27.– Infracciones de los usuarios.

1.– Constituye infracción leve el incumplimiento por los usuarios de las obligaciones que les correspondan, conforme a lo dispuesto en el artículo 4 de esta ley.

2.– Tales infracciones se depurarán sin perjuicio de la responsabilidad de carácter civil que, en su caso, pueda demandar el transportista al usuario o al ocupante del vehículo.

Artículo 28.– Sanciones.

1.– Las infracciones leves se sancionarán con apercibimiento y/o multa de hasta 46.000 pesetas y/o retirada del título habilitante por un tiempo máximo de quince días. Las graves, con multa de 46.001 a 230.000 pesetas y/o retirada del título habilitante por un tiempo máximo de seis meses. Las muy graves, con multa de 230.001 a 460.000 pesetas y/o retirada del título habilitante por un tiempo máximo de un año.

La cuantía de las sanciones que se impongan, dentro de los límites establecidos en el párrafo anterior, se graduará de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 2/1998, de 20 de febrero.

2.– Independientemente de las sanciones que correspondan de conformidad con esta ley, la comisión reiterada de infracciones muy graves o con quebranto de la sanción impuesta podrá dar lugar a la revocación del título habilitante.

Artículo 29.– Prescripción.

1.– Las infracciones muy graves prescribirán a los tres años, las graves a los dos años, y las leves a los seis meses.

2.– Las sanciones impuestas por infracciones muy graves prescribirán a los tres años, las impuestas por infracciones graves a los dos años, y las impuestas por infracciones leves al año.

3.– En relación con el cómputo del plazo de prescripción tanto de las infracciones como de las sanciones impuestas, así como en relación con la interrupción y reanudación del plazo, se estará a lo preceptuado en la Ley 2/1998, de 20 de febrero.

Artículo 30.– Competencia y procedimiento.

1.– La imposición de las sanciones previstas en esta ley será ejercida por los órganos administrativos competentes, según lo dispuesto en el artículo 3.

En cualquier caso, la revocación de la autorización y de la licencia deberá ser impuesta por la Administración que las otorgó.

2.– El procedimiento para la imposición de las sanciones previstas en la presente ley, así como su ejecución, se ajustará a lo dispuesto en la Ley 2/1998, de 20 de febrero.

Sin perjuicio de lo dispuesto en dicha ley en relación con las medidas cautelares que en su caso pudieran adoptarse en el procedimiento sancionador, cuando sean detectados durante la prestación de un servicio los

gero, ibilgailua berehala geldiarazteko agindu ahal izango da, harik eta ustezko arau-hauste horren arrazoiak desagertu arte, eta administrazioak zerbitzua hobeto emateko behar diren neurriak hartu ahal izango ditu.

3.– Administrazio-bideko erabaki finkoz ezarritako diruzko zigorrak ordaintzea ezinbesteko baldintza izango da bisatua egiteko, baita lizentziak eta baimenak eskualdatzeko ere.

XEDAPEN GEHIGARRIAK.

Lehenengoa.– Baimena ematen zaio Eusko Jaurlaritzari zigorren diru-kopurua momentuan momentuko ekonomi egoeraren arabera egoki dezan.

Bigarrena.– Lege hau indarrean sartu eta gehienez ere ondorengo bi urteko epean, udalerri bakoitzari eta, kasua hori bada, ezar litezkeen zerbitzu-eremu bateratuei dagokien baimen eta lizentzien gehienezko kopurua ezarriko da.

Hirugarrena.– Eusko Jaurlaritzak lege hau garatu eta betetzeko behar diren araudizko xedapenak emango ditu legea indarrean sartu eta ondorengo sei hilabeteko epean.

XEDAPEN IRAGANKORRAK.

Lehenengoa.– Lege honetan aurreikusi bezala legea garatzeko araudia egiten ez den bitartean, legean ezarritakoaren kontra ez badaude behintzat, arlo honetan indarrean dauden arauak aplikatuko dira.

Bigarrena.– Lege hau indarrean sartzean gidaria eta titularra bien artean zerbitzuak eskaintzen ari badira gaitasuna ematen duen titulu jakin bat dela bide, zerbitzuak horrela eskaintzen jarraitu ahal izango dute, pertsona horien arteko lan-lotura mantentzen den bitartean eta zerbitzua titulu horren babespean eskaintzen den bitartean.

Hirugarena.– Lege hau indarrean sartzen denean lizentzia bat baino gehiago duten pertsonek titular izaten jarraitu ahal izango dute lizentziak eskualdatzen ez dituzten bitartean. Ezin izango zaio lizentziarik eskualdatu titular bati.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

Indarrik gabe geratuko dira lege honetan ezarritakoaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko lege-xedapenak.

AZKEN XEDAPENA.

Lege honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean hartuko du indarra.

supuestos descritos en los artículos 26.1.a) y 26.2.e) de la presente ley podrá ordenarse la inmediata paralización del vehículo hasta que desaparezcan los motivos determinantes de la posible infracción, pudiendo la Administración adoptar las medidas necesarias para la mejor prestación del servicio.

3.– El pago de las sanciones pecuniarias impuestas por resolución firme en vía administrativa será requisito necesario para la realización del visado, así como para la transmisión de las licencias y autorizaciones.

DISPOSICIONES ADICIONALES.

Primera.– Se autoriza al Gobierno Vasco para que adapte la cuantía pecuniaria de las sanciones según las circunstancias económicas existentes en cada momento.

Segunda.– En el plazo máximo de dos años desde la entrada en vigor de esta ley se procederá a fijar el número máximo de autorizaciones y licencias que corresponda en cada municipio y, en su caso, en las áreas de prestación conjunta que pudieran determinarse.

Tercera.– El Gobierno Vasco dictará, en el plazo de seis meses desde la entrada en vigor de la ley, las disposiciones reglamentarias que resulten precisas para el desarrollo y aplicación de la misma.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS.

Primera.– En tanto no se proceda al desarrollo reglamentario previsto en esta ley, se aplicarán, en lo que no se oponga a la misma, las normas vigentes en esta materia.

Segunda.– Los servicios que a la entrada en vigor de esta ley se estén prestando de forma conjunta entre conductor y titular en relación con un determinado título habilitante podrán seguir prestándose en la misma forma, mientras se mantenga la relación laboral entre las mismas personas y se preste el servicio al amparo del mismo título.

Tercera.– Las personas que a la entrada en vigor de esta ley sean titulares de más de una licencia, podrán continuar siéndolo en tanto no sean transferidas. Las licencias no podrán ser transferidas a quien ya sea titular de alguna de ellas.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas cuantas disposiciones legales de igual o inferior rango se opongan a lo establecido en la presente ley.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente ley entrará en vigor al día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Vitoria-Gasteiz, 2000ko uztailaren 13a.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Por consiguiente, ordeno a todos los/las ciudadanos/as de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 13 de julio de 2000.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

NEKAZARITZA ETA ARRANTZA SAILA

Zk-3413

AGINDUA, 2000ko uztailaren 19koa, Nekazaritza eta Arrantza sailburuarena, behi-esnearen erreferentzia-kopuruak berresleitzeko prozedura eta irizpideak ezartzen dituena.

Kontseiluaren maiatzaren 17ko 1256/1999 (EB) Arautegiaren bidez, esne eta esnekien Merkatuaren Antolamendu Komunaren erreforma egituratu zen, eta 2000ko apirilaren 1etik aurrera jarri zen indarrean. Horren barruan, besteak beste, kide diren estatuek bermaturik zituzten esne-kuotaren kopuru orokorrak handitzea erabaki zen; hori dela eta, Estatuaren esne-kuotak 550.000 tonako hazkundea izan du, eta 2000/2001 eta 2001/2002 urtealdietan banatu beharko da.

1999ko urriaren 25eko Nekazaritza Arloko Biltzarrak aldeko irizpena eman zuen, aipaturiko esne-kuota autonomia-erkidegoen artean banatzeari dagokionez. Euskal Autonomia Erkidegoari 26.000 t aintzatetsi zitzaizkion. Horietatik 2.600 t Erreserban gordetzeko dira, 15.210 t 2000/2001 aldian erabiltzeko, eta 8.190 t 2001/2002 aldirako.

Azaroaren 28ko 324/1994 Errege Dekretuaren 10. artikuluan ezartzen denez, Erreserba Nazionalean sartutako behi-esnearen erreferentzia-kopuruak esleitzeko eta berresleitzeko proposamena egitea esnegintza uzteko programa finantzatu duen autonomia-erkidegoari dagokio, baldin eta autonomia-erkidegoen baliabideen kontura finantzaturiko esnegintzari borondatez uzteko programetan badute jatorria.

Abenduaren 30eko 360/1992 Dekretuak (dekretu hau, gerora, ekainaren 1eko 164/1993 Dekretuak aldatu zuen) Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza Saileko Nekazaritza Zuzendaritzari aitortzen dio, EAEren lurralde-eremuaren barruan, behi-esnearen erreferentzia-kopuruak esleitzeko eta berresleitzeko kudeaketa, baldin eta esnegintza usteko programetan badute jatorria, eta programa horiek guztiz edo zati batean Eus-

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA Y PESCA

Nº-3413

ORDEN de 19 de julio de 2000, del Consejero de Agricultura y Pesca, por la que se establece el procedimiento y criterios para la reasignación de cantidades de referencia de leche de vaca.

La reforma de la Organización Común del Mercado de la leche y los productos lácteos, articulada mediante el Reglamento (CE) 1256/1999, del Consejo de 17 de mayo, aplicable desde el 1 de abril de 2000, dispone, entre otras cuestiones, un aumento de las cantidades globales de cuota láctea garantizadas de los Estados miembros; esto se ha traducido en un aumento de la cuota láctea para el conjunto del Estado de 550.000 Tn, a distribuir en los períodos 2000/2001 y 2001/2002.

La Conferencia Sectorial de Agricultura de 25 de octubre de 1999, informó favorablemente, entre diversas cuestiones, sobre la distribución de la precitada cuota entre las distintas Comunidades Autónomas, correspondiendo a la Comunidad Autónoma de Euskadi 26.000 Tn, de las cuales 2.600 Tn se mantendran en la Reserva; 15.210 Tn se podrán utilizar en el período 2000/2001, y 8.190 Tn en el período 2001/2002

El Real Decreto 324/1994, de 28 de noviembre, establece en su artículo 10 que la propuesta de asignación y reasignación de cantidades de referencia de leche de vaca incluidas en la Reserva Nacional, que provengan de programas de abandono voluntarios de la producción láctea financiados con cargo a los recursos financieros de cada Comunidad Autónoma, corresponderá a la Comunidad Autónoma que haya financiado dicho programa de abandono.

El Decreto 360/1992, de 30 de diciembre, modificado por el Decreto 164/1993, de 1 de junio, atribuye, en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco, a la Dirección de Agricultura del Departamento de Industria, Agricultura y Pesca del Gobierno Vasco la gestión en materia de asignación y reasignación de cantidades de referencia de leche de vaca que provengan de programas de abandono financiados, to-